

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

19/2020 Foru Araua, urriaren 21ekoa, Arabako toki erakundeentzako finantzaketa eta aurrekontu neurriak ezartzen dituen

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko urriaren 21ean egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

19/2020 Foru Araua, urriaren 21ekoa, Arabako toki erakundeentzako finantzaketa eta aurrekontu neurriak ezartzen dituen.

ZIOEN ADIERAZPENA

Kontzertu Ekonomikoaren esparru juridiko-positiboaren funtsezko elementua Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian dago; horren bidez, foru lurraldeen eskubide historikoak babesten eta errespetatzen dira, eta, aldi berean, foru araubide horren eguneratze orokorra agintzen da, Konstituzioaren eta Autonomia Estatutuaren esparruan.

Aipatutako konstituzio agindua betez, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak arlo horretako funtsezko printzipioa ezartzen du, eta horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako erakunde eskudunek beren zerga sistema mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dute.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 15. atalak eskumen zabalak ematen dizkie lurralde historikoei toki ogasunen arloan. Esleipen horrek, lurralde historikoetako erakunde eskudunek beren lurraldean beren zerga araubidea mantendu, ezarri eta arautzeko duten gaitasunarekin batera, Arabako tokiko finantzaketa Arabako Lurralde Historikoaren eskumen eskusiboa dela esan nahi du.

Hala aitortzen du, halaber, autonomia erkidegoko legeriak tazituki, martxoaren 23ko 2/2007 Legearen laugarren xedapen gehigarrian (Baliabideak banatzeko eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko 2007-2011 aldian egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologiari buruzkoa); izan ere, adierazten du lurralde historikoetako foru organoek, Ekonomia Itunean eta azaroaren 25eko 27/1983 Legean aitortutako ahalmenak alde batera utzi gabe, arrisku partekatuen irizpidea erabiliko dutela, urtero, lurraldeei dagozkien itunpeko diru sarreretan toki erakundeen parte hartzea ezartzean.

Azkenik, eta Lurralde Historikoaren eskumen esparruarekin amaitzeko, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren zortzigarren xedapen gehigarriak ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoek beren araubide berezia izaten jarraituko dutela udal arloan, Ekonomia Itunari buruzko Legearen arabeko ekonomia eta finantza araubideari dagokionez, baina horrek ez du esan nahi EAEko toki korporazioen autonomia gainerako korporazioek dutena baino txikiagoa denik.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) nazioarteko pandemiatzat jo zuen martxoaren 11n COVID-19 gaixotasunak osasun publikoan eragindako larrialdi egoera.

2020ko martxoaren 13an, diputatu nagusiak Arabako Lurralde Historikoko Larrialdietarako Foru Plana aktibatu zuen, eta LABIn sartu, eta ALHAOn argitaratu zen, 2020ko martxoaren 16an.

Aurrerago, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, Espainiako estatu osoan alarma egoera deklaratu zen, COVID-19 gaixotasunak sortutako osasun krisia kudeatzeko. Hurrezker, nabarmen hazi da kaltetuen kopurua Euskadin eta Europako herrialde askotan, bai eta Arabako esportazioen ohiko helmuetan ere.

Salbuespenezko egoera horren ondorioz, erakundeek aparteko neurriak hartu behar izan dituzte herritarren eta enpresen zailtasunak arintzeko eta, bereziki, pertsona ahulenen eskubideak babesteko. Administrazio publikoek larrialdiari eta krisiak eragindako jarduera ekonomikoaren geldialdiari aurre egiteko hartutako neurri horiek zerga bilketa nabarmen murriztea ekarri dute.

Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen finantza eredia arrisku partekatua printzipioan oinarritzen da. Alegia, itundutako zergen errendimendua Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta toki erakundeen artean banatzen da, bai banatu beharreko baliabideak handitzen direnean, bai murrizten direnean. Egoera arruntetan, zerga itunduetako behin-behineko partaidetza urtean zehar helarazten zaie Eusko Jaurlaritzari eta toki erakundeei, aurrekontu aurreikuspenen arabera, eta hurrengo urteko otsailean likidatzen da behin betiko saldoa.

Alabaina, ereduaren aplikazioa zehazten duen Arabako araudiak ez du aurreikusten egungoa bezalako egoerarik; izan ere, diru sarreraren hasierako aurreikuspenaren aldaketa hain da handia, ezen beharrezkoa baita urtean zehar Eusko Jaurlaritzari eta Arabako toki erakundeei egingo zaizkien konturako ordainketak berrikustea, zehazkiago egokitu ahal izateko azkenean lortzen den bilketari eredia aplikatuta ateratzen den urteko kopurura, aurrekontu eta diruzaintza arazorik izan ez dadin likidatzeko unean.

Horiek horrela, komenigarria da tokiko erakundeek Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza dela eta jasoko dituzten konturako ekarpenak doitzeko mekanismo bat ezartzea, salbuespenezko egoeretan aldatu ahal izateko, likidazioaren zain egon gabe.

Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza arautzen duen ekainaren 30eko 19/1997 Foru Arauaren 15. artikulua funtsaren ordainketak arautzen ditu.

Bertan ezartzen denez, udal eta kuadrilla bakoitzerako onetsitako esleipena hiru hilean behin ordainduko da, zati berdinetan, urte bakoitzeko urtarrileko, apirileko, uztailako eta urriko azken egun baliodunean, eta kontzejuetakoa sei hilean behin, zati berdinetan, urte bakoitzeko urtarrileko eta uztailako azken egun baliodunean.

Araudi horrek, ordea, ez du kontuan hartzen dirubilketan salbuespenezko egoerak gertatzeko aukera, eta beharrezkoa da arau aldaketa bat egitea, kasu horietan Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtseko konturako entregak berrikusteko.

Bestalde, toki erakundeek zailtasunak dituzte COVID-19 gaixotasunaren ondorioei aurre egiteko neurriak behar bezain azkar ezartzeko, horretarako kreditu gehigarriak onetsi behar direnean. Izan ere, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 34.3 artikulua arabera, kreditu gehigarriak onestea Osoko Bilkuraren eskumena da, eta aurrekontua onesteko aplikatzen diren erreklamazio eta publizitate arauak aplikatu behar zaizkio espedienteari. Beraz, komenigarria litzateke prozedura arinagoa izatea, larrialdi egoerari aurre egiteko neurriak berehala indarrean jarri ahal izateko.

Artikulu bakarra. Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza arautzen duen ekainaren 30eko 19/1997 Foru Araua aldatzea

Aldatu egiten da Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza arautzen duen ekainaren 30eko 19/1997 Foru Arauaren 15. artikuluko 1. apartatua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“1. Bai aurreko artikuluan ezarritakoa aplikatzeagatik, bai Foru Arau honen bosgarren artikuluan ezarritako ereduaren arabera erabilgarri dauden baliabideak eraginkortasunez kalkulatzegatik bidezkoak diren esleipenen zenbatekoak gorabehera, udal eta kuadrilla bakoitzerako onetsitako esleipena hiru hilean behin ordainduko da, zati berdinetan, urte bakoitzeko urtarrileko, apirileko, uztailako eta urriko azken egun baliodunean. Hala ere, hiruhilekoko konturako ekarpen horien zenbatekoa birdoitu ahal izango da, ezohiko egoerek aldaketa negatibo nabarmenak eragiten badituzte eskura dauden baliabideen hasierako kalkulua egiteko erabili zen zerga bilketaren aurreikuspenen arabera. Aurreikuspenen aldaketa horiek Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan erabaki beharko dira.

Udalen eta kuadrillen kasuan, doikuntza hori Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak dirubiketaren aurreikuspenak berrikusteko erabakia hartu ondoren aurreikusitako konturako lehen entregan egingo da, eta Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funts aplikagarriaren urteko zenbateko berrian oinarrituta kalkulatu da, dagozkion esleipen berrietatik aurretik kontura ordaindutako zenbatekoa kenduta.

Tokiko eskumeneko zerbitzu publikoen kudeaketa eta prestazioa babesteko, Arabako Foru Aldundiak salbuespenezko neurriak hartu ahal izango ditu, baldin eta likidatutako azken ekitaldian agerian utzitako gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren eta birdoitu beharreko zenbatekoaren arteko alde negatiboa eragindako toki erakundeak onetsitako azken aurrekontu likidaziotik eratorritako diru sarrera arrunten ehuneko bosta baino handiagoa bada.

Salbuespenezko neurri horiek ezin izango dute arrisku partekatua printzipioa hautsi, ez eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu egonkortasuna arriskuan jarri ere.

Baimena ematen zaio Lurralde Oreaken Saileko foru diputatuari Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren konturako ekarpenen zenbatekoaren berrikuspena onesteko."

Xedapen gehigarria. COVID-19 gaixotasunaren ondorioei aurre egiteko neurriei dagozkien kreditu gehigarriei buruz 2020. eta 2021. urteetan izapidetu diren espedienteen salbuespenezko araubidea

1. Toki erakundeetan, COVID-19 gaixotasunaren ondorioei aurre egiteko neurriei dagozkien kreditu gehigarrien espedienteak toki korporazioko lehendakariaren dekretu edo ebazpen bidez izapidetuko dira, eta ez zaizkie aplikatuko Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 34. artikuluan aipatzen diren aurrekontuen erreklamazioari eta publizitateari buruzko arauak.

2. Dekretu edo ebazpen horiek hurrengo osoko bilkuran baliozkotuko dira. Horretarako, gehiengo sinplearen aldeko botoa eskatuko da, bai eta ondoren ALHAOn argitaratzea ere.

Azken xedapenetako lehena. Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeekin epe luzeko kreditu eragiketa aktiboak formalizatzeko baimena

Baldin eta toki erakunderen batean egoera erabakigarriak gertatzen badira eta horren ondoriozko ezohiko jarduerak direla bide kreditu eragiketa aktiboak ituntzen badira, Arabako Foru Aldundiari berriazko baimena ematen zaio epe luzeko kreditu eragiketa aktiboak formalizatzeko Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeekin, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak txostena egin ondoren. Foru Gobernu Kontseiluak zehaztuko du interes tasa, halakorik bada, bai eta gainerako baldintzak. Edonola ere, eragiketa horiek aurrekontu izaera izango dute.

Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Entitateen Aurrekontuari buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren bosgarren xedapen gehigarriaren salbuespen gisa, Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio epe luzeko kreditu-eragiketak formalizatzeko Arabako Lurralde Historikoko tokiko entitateekin, baldin eta euren hasierako aurreikuspenak aldatu behar izan badituzte Foru Funtsak izandako birdoitzearen ondorioz, zeina Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren barruan adostutako diru-bilketaren aldaketen emaitza baita. Tokiko entitateek, betiere, behar bezala justifikatuta egin beharko dute eskaera euren aurrekontu- eta finantza-egoera kontuan izanda.

Zorpetzeko baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari, aipaturiko epe luzeko eragiketak formalizatzeko beharrezkoak diren funtsak eskuratzeko beharrezkoa den diru-kopuruagatik.

Arabako Foru Aldundiak eta tokiko entitateek adostuko dituzte aurrekontu-eragiketa hauek, eta beharrezkoa izango da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak txosten bat egitea; interes-tipoa Foru Gobernu Kontseiluak zehaztuko du, berriz, baldin balego, bai eta gainerako baldintzak. Baldintza horiek ezin izango dute arrisku partekatua printzipioa hautsi, ezta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu-egonkortasuna arriskuan ipini.

Arabako Batzar Nagusiei emango zaio neurri berri, eta gardentasun-atarian argitaratuko dira.

Azken xedapenetako bigarrena

Foru Arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 21a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA